



Helduen Literatura | POESIA

Parisen bizi naiz
Koldo Izagirre
Susa, 2013

Neguko hotza bezain ona

URGENTZIAZKO IRUZKINA eskatu zidaten *Deiako Ortzadar* gehigarriak Izagirreraren poesiaren gainean, eta artean *Parisen bizi naiz* azken honen herena-edo irakurria nuelarik, barruak halako bat egin zidan, emozio bat *Balitzko erroten erresuma* irakurri nueneko garaietara eroan ninduen, poesiak funtzio bat zeukala barruntatzen hasi gineneko militantziara. Eta idatzi nuen: “Gure erbesteko ahotsa den moduan Joseba Sarrionandia, Koldo Izagirre begitantzen zait barruko militanteen mailu eta kontzientzien erauntsi...”. Eta berresten ditut berba horiek *Parisen bizi naiz* bukatu eta penaz itxi dudan honetan, zerua aratz eta eguzkia hotz, eta berriro diot, musika berezi bat dario Izagirreraren letrari, indartsua da eta leuna eta kontsentsura ekargaitza.

Poesiak bakarrik ezin dituenek bihotzak eta kontzientziak konkistatu, Izagirrek kontakizunak bihurtzen ditu poemagai eta gure garaiko manifestu, izan neurtitzetan, neurri bako hitzetan zein artikulatu moduan.

Donostia darabil mende hasiera honen metaforatzat. Arkitektura urbanismoari gailendu zaion hipokriten garaia deskribatzen du, non itxurak ez duen mamirik nahi, non turistak aurkitu nahi duen gauza bera edonon. Beharraz lotsatzen den Kantauri ertzeko *8eme arrondissement* batetik esaten digu, beraz, kontuz ibiltzeko, historiaren amaierara ez

garela oraino iritsi: “Beste inor hurbiltzen ez bada nik badakit/ behineneko landareak ez direla muskil- du espaloietan/ baizik zapatak hondatu izan ditugun erre bideetan”.

Topografia horretarako hizkuntza tentuz hautatu du Izagirrek, poesia lar poetikotik urrun eta zurruntasun errealistatik ere bai. Erdibideko bertute horren zerbitzura dagoen mintzaira bat da ia liburuko euskara, ereduazko euskal-gaiztotik urruntzen dena eta benetan euskaraz egiten genueneko tonuaz oroitzen gaituena. Horrek egiten du irakurraldia gozo eta liburua gailen; eiteengatik da hunkigarri, aberastasun eta malgutasun euskaldunagatik eder. Mintzaira horri esker gorpilik gabeko neumatikoaren goma hutsa bihurtzen da “neumatiko begihustua”, eta aditzaren elektzioa poesiaren klabea bera: “Bihotza ez du ibiltzen/ beti bihotz berak”.

Izagirrek idazle autonomiatik opatzen du bere indarra paradigma berriak indartzeko. Literatura zabal kulturen ilusioa opatzen digu orrialderik orrialde, eurrez-eurrez erabiliz, irudimena beste, herriaren jakitea. Poesiaren puruz poesia bera gaindituko du halako batean, gainditzen diren bezala kontradikzioen puruz gizarteak. ■

Igor Estankona



Liburu azoka

Hondarribian, abenduaren 11tik 15era San Pedron.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!